

## **IKUSPEGI SOZIOAFEKTIBOA**

Proposatzen dizuegun metodoa aktiboa eta lankidetzazkoa da, eta norberaren esperientzian edo bizipenetan oinarriturik dago. Helburua taldean lankidetzaz bultzatzea da, eta bilaketa kolektiboa sustatzea.

Metodologia sozioafektiboak jolasa erabiltzen du haurren sentimenduak, gogoetak, esperientziak eta bizipenak azalera ateratzeko, pertsonaren barruan gera ez daitezen.

Horretarako, ezinbestekoa da taldean giro atsegina sortzea. Lankidetzarako oso lagungarria da; izan ere, inork ezin du ikasi estresatuta, nekatuta edo urduri badago, edo motibaziorik ez badu. Espazioaren antolamendu egokiak ere giro atsegina sortzen laguntzen du.

Imajina dezakezue, metodologia ezbiolentoa erabiltzen duen hezitzailearen egitekoa ohikotik nahiko desberdina da. Beraren helburu nagusia zera da, bilaketa prozesu kolektiboa sustatzea. Hezitzaile ezbiolentorekin xedea ez da "hutsik dagoen baso bat betetzea", baizik eta ontzi horretan lehendik dagoena aztertzea eta basoa betetzea haurren taldekideen laguntzaz.